

2020 KO MEMORIA



NAFARROAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OFIZIALA





AURKIBIDEA

1. Aurkezpena

2. Elkargoaren egitura

- Organigrama
- 2019-2022 Lan Plana
- Gobernu Batzordeak egindako bilerak
- Beste erakunde batzuetan parte hartutako bilerak (Unipro. CNBS, CNS, Pobreziaren Sarea,...)
- Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiaren Batzarra

3. COVID-19

4. Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialaren batzar orokorrak

5. Elkargoko kide egitea

6. Zer eskaintzen die Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak elkargokideei?

- Prestakuntza
- Batzordeetan eta lan-taldeetan parte hartzea
- Elkargoko kideentzako enplegu-poltsa
- Bitartekaritza-zerbitzua
- Erantzukizun Zibileko aseguruia
- Aholkularitza juridikoa
- Hitzarmenak
- Komunikazioa
- Peritazio judizialak

7.- Bestelakoak



1. AURKEZPENA

Urtero bezala, memoria honen bitartez, Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak 2020. urtean garatutako jardueraren berri emango dizuegu.


Urte hau ezohiko urtea izan da 2020ko martxoan etorri zitzaigun pandemia dela-eta. Hasteko, Batzar berri batean lanerako programa bat ezarri zen, baina martxoan etenda geratu zen, Gizarte Lanaren Munduko Egunaren aurretik.

Memoria honetan, hasiera batean planifikatutako lanerako plana ez ezik, NGLEOren egokitzapena ere erakutsiko dizuegu, hainbat aldiz aldatzen joan den egoerari aurre egin behar izan diogu-eta.

Bestalde, NGLEOk baita ere nahi izan du aurten **Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH)** sartzen hastea egindako jardueretan. **“Gure mundua aldatzea”** da **2030** agendaren goiburua. Agendaren helburua, berriz, 17 GIHren bitartez (helburuak eta jomugak), pobrezia desagerraraztea eta garapen iraunkorra eta berdintasunezkoa bultzatzea da. Urte honetan zehar, dagoeneko egindako ekintzak Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) lerrokatzen hasi gara.

2.- ELKARGOAREN EGITURA

NGLEO Gobernu Batzordeak, Batzordeek, Gizarte Langintzaren Elkargoko langileek eta elkargokideek osatzen dute. Hona hemen 2020an zehar elkargoaren egitura osatu dutenak.





Nortzuk gara -Batzordea-



Hemen ikus dezakezue nortzuk osatu duten NGLEOko Batzordea 2020an zehar. Batzordea osatzen duten pertsona bakoitzari buruzko informazioa apur bat gehiago ezagutzeko, helbide honetan egin dezakezue kontsulta:

<https://trabajosocialnavarra.org/#quienes-somos>

Batzordearen Lanerako Plana (2019-2022)

**PROPUESTA DE TRABAJO DEL
COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO
SOCIAL DE NAVARRA
LEGISLATURA 2019/2022**

LÍNEAS ESTRATÉGICAS

**DEFENSA DE LA PROFESIÓN Y BUENA
PRAXIS**

- Apoyar y promover la "colegiación obligatoria".
- Promover acciones sobre **ética profesional** (consultar otros comités, promover creación de comisión de ética en el COTS...).
- **Potenciar relaciones** con otras entidades (privadas, tercer sector...) para captar más ofertas laborales.
- Fomentar el **desarrollo profesional continuo**.

PARTICIPACIÓN COLEGIAL

- Realizar **campañas de colegiación**, enfocadas a posibles colegiados/as y entidades (Admón. pública, entidades sociales...).
- Creación de **espacios temáticos** (café-tertulias, espacios compartidos...).

- Creación de más **estructuras de participación** (colaboraciones).
- Dinamizar y promover las comisiones / grupos de trabajo.
 - Promover la **comunicación-relación intercolegial**.
- **Defensa de nuevos espacios profesionales.**
- **Mejora continua de servicios** que se ofrecen desde el COTS (Biblioteca, bolsa empleo, boletines, etc.).
- Ampliar acciones en el **ámbito rural**.

TRANSFERENCIA DEL CONOCIMIENTO

- Elaboración de un **plan de formación**.
- Realizar **presentaciones de libros**.
- Realizar **convenios de colaboración** con universidades, instituciones, otros colegios profesionales, etc...
- **Promover nuevos espacios profesionales** (TS gerontológico, TS sanitario, etc.).
- Introducir "**premio al TS de Navarra**".
 - Realizar **publicaciones**.

COMUNICACIÓN Y REDES

- **Visibilización** del Colegio Oficial de Trabajo Social a través de la página Web y Redes Sociales.
- Más presencia de **euskera y perspectiva de género** en nuestras comunicaciones.

PARTICIPACIÓN SOCIAL Y POLÍTICA

- **Promover y participar en foros, redes y movimientos sociales**, entre otras.
- **Participar** en aquellas actividades orientadas a la **mejora de condiciones de TS** (convenio de inserción social).
- Resaltar la figura de **Concepción Arenal**.

LÍNEAS TRANSVERSALES
que atraviesan la propuesta de trabajo:
**Transparencia, Ética,
Igualdad y T.S. en defensa
del Planeta**



Horixe da Batzordeak 3 urteko agintaldirako ezarritako lanerako plana. Bertan, jarraitu beharreko hainbat ildo estrategiko ezarri dira. Halaber, Batzordeak irauten duen denboran zehar garatuko diren ekintza guztietan kontuan izan beharreko zeharkako ildoak ezarri dira.

2020an zehar, lanerako plana egokitzen joan behar izan da COVID-19aren pandemiaren ondorioz sortuz joandako premien esparrura.

Gobernu Batzordeak egindako bilerak

- 2020. urte osoan zehar, Elkargoko Gobernu Batzordea **24 aldiz bildu da gehienbat hamabost egunean behin**. Konfinamendua medio, martxoan, apirilean eta maiatzean astero bildu zen.
- Horiei gehitu behar zaizkie **Ohiko Batzar Nagusietan egindako beste bi bilera**.



Beste erakunde batzuetan parte hartzeko/koordinatzeko bilerak

Jada ohikoa den moduan, NGLEOk, denboraldi honetan zehar, kide den eta parte hartzen duen erakundeen bileretara eta deietara joaten jarraitu du:

- **Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua** – NGLEOri bileretara joateko deia egiten diote, eta horietan Eskubide Sozialen inguruan onartzen diren gaien berri jasotzen du.
- **Nafarroako Osasunaren Kontseilua** – NGLEOri bileretara joateko deia egiten diote, eta horietan Osasun gaien inguruan onartzen diren gaien berri jasotzen du.
- **Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusia** – NGLEO Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiko kidea da, eta, beraz, Kontseiluak Nafarroako elkargokideentzat interesgarriak diren gaien inguruan antolatutako bilera, prestakuntza eta batzarretara joaten da.
- **Pobrezia Sarea** – Erakunde horretako kideak gara, eta NGLEOk jardueretan parte hartzen du.
- **Nafarroako Lanbide arteko Batasuna (UNIPRO)**. NGLEO UNIPROk antolatutako bileretara joaten da (bilera 1 2020an).
- **Lehen Arreta –Eskubide Sozialak**- NGLEOk bilerak eskatu ditu eta/edo bideratutako eskariak artatu ditu.
- **Osasun Departamentua**
- **Iruñeko (MICAP) eta Lizarrako Abokatuen Elkargoak**.- NGLEO bi Elkargoekin egindako koordinazio-bileretara joan da, eta dituzten hitzarmenak zabaldu dira.
- **Justizia Departamentua**- NGLEO hainbat bileratan izan da (2 2020an), bitartekaritza-zerbitzua baloratzeko eta zerbitzua koordinatzeko.



- **Nafarroako Geriatria eta Gerontologiako Sozietatea** – Koordinazio-lanak egin dituzte Zahartzaroaren XIX. Biltzarrean esku hartzeko (Zahartzea, Duintasuna eta Osasuna), baina azkenean aurrerago egitekotan geratu dira.
- **Gizarte Laneko eta Osasuneko Estatu Elkarteak (Nafarroako delegazioa)** egindako gutunerako atxikipena eta Nafarroako Osasun Kontseilaritzara bidaltzea.
- **NUP- NU**Pein hitzarmena eguneratzeko bilerak egin ditugu.
- **COVID-19 Haurtzaroa-nerabezaroa diziiplina arteko mahaia** – Pandemia bete-betean sortutako haurtzaroa-nerabezaroa diziiplina arteko mahaian parte hartu du NGLEOK (Gizarte Zerbitzuen Batzordeko kide baten bitartez).

Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiaren Batzar Orokorrak

Urtero bezala, Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiak ohiko bi batzar orokor egin ditu 2020an, eta horietan NGLEOK parte hartzen du Gizarte Langintzaren gainerako Elkargo Ofizialekin batera.

2020ko martxoan eta abenduan egin ziren Kontseiluaren batzarrak. Lehenengoan 2019ko urteko memoria aurkeztu zen (teknikoa eta ekonomikoa) eta bigarrenean aurrekontua eta 2021erako lanerako plana. Biak online egin ziren.




- *Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiaren Ohiko Batzar Orokorra 2020ko martxoaren 13an.*



3. COVID-19

2020. urtea hasi eta lanerako plan bat sortu ondoren, 2020ko martxoaren 14an alarma-egoera eta aldi baterako konfinamendua deklaratu ziren, horrek dakarren guztiarekin. Era horretan, seihilekorako proposaturiko jarduera guztiak geldiarazi eta bertan behera geratu ziren, eta asteroko ezohiko bileren ondoren, erabakiak hartu eta ekintzak gauzatu ziren gizarte-laneko profesionalei laguntze aldera.


Halaber, web gune bat sortu zen gure elkargokideei laguntza, informazioa, prestakuntza, e.a. emateko.



Bi web gune sortuko dira:

- Baten estekak **Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiak** COVID-19aren inguruan sortutako web espezifikora eramango gaitu. Bertan, dokumentu ugari sortuko dira gizarte-lanak bere baitan hartzen dituen arlo ezberdinen inguruan. Esteka honetan, dokumentu tekniko eta informatibo asko aurki daitezke lanbidearen gainean, betiere pandemiarekin lotuta.
- Bigarrena Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialaren esteka da, eta 4 ataletan zatitua agertuko da:
 - COVID-19arekin loturiko araudia
 - Dokumentu eta gida interesgarriak
 - Baliabide eta informazio interesgarria
 - Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialaren ekintzak

<https://trabajosocialnavarra.org/recursos-para-profesionales-de-trabajo-social-ante-el-covid-19/>



- **COVID-19arekin loturiko araudia**

Hemen aurki daiteke COVID-19aren inguruko araudi osoa, alarma-egoera deklaratu zenetik lehen hilabeteetan biltzen joan ginena.

- **Dokumentu eta gida interesgarriak**

Hemen aurki ditzakegu alarma-egoera deklaratu zenetik lehen hilabeteetan zehar sortzen joandako gida eta dokumentu interesgarri guztiak.

- **Baliabide eta informazio interesgarria**

Hemen biltzen dira alarma-egoera deklaratu zenetik lehen hilabeteetan zehar sortzen joandako zenbait baliabide (Administrazioarenak, beste erakunde batzuenak eta komunitatearenak).



- **Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialaren ekintzak**

Hona hemen alarma-egoera deklaratu eta 2020ko hurrengo hilabeteetan zehar NGLEOK egindako ekintzen zerrenda:

**(Esteka urdinak saka ditzakezue edukia ikusteko)*

2020/11/17- Lankidetzeta-bilera Nafarroako Gobernuko Osasun Zuzendaritza Nagusiarekin.
[2020/09/09- NUKFekin.](#)

2020/08/03 – Bilera Nafarroako Eskubide Sozialetako kontseilariarekin.

2020/07/29- Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari lankidetzeta eskaintzea arakatze-lanetarako.

2020/06/29- [Eskubide Sozialekin eta NUKFekin bilerak](#) egiteko eskatzea (Gizarte Zerbitzuen Batzordea, Garapen Komunitarioaren Batzordea eta Elkargoko Batzordea).

[2020/06/17- COVID-19 eta haurtzaroa eta nerabezaroa Nafarroako mahaiak egindako dokumentu berrietan parte hartzea eta horiek zabaltzea.](#)

[2020/06/03- Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofiziala autonomoentzako Nafarroako Gobernuko laguntza-kanpainan erakunde laguntzaile gisa atxikitzen da.](#)

[2020/05/29 – Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialak bat egiten du COVID-19a dela-eta hildako pertsonen aldeko luto ofizialarekin.](#)

[2020/05/23- COVID-19 eta haurtzaroa eta nerabezaroa Nafarroako diziplina arteko lan-mahaiaren II. Dokumentua egiten parte hartzea. info +](#)

[2020/05/21. #GutxienekoErrentaBai EAPNren kanpainara atxikitzea eta egindako manifestua sinatzea.](#)

[2020/05/21- COVID-19 langile autonomoentzako laguntzen izapidean Nafarroako Gobernuko erakunde laguntzaile gisa atxikitzen da.](#)

[2020/05/12- Aldi baterako enpleguko poltsa bat sortzea eta hori eskaintzea Iruñeko Udalari eta NUKFri. Iruñeko Udalak 17 pertsona kontratatuko ditu 2020ko ekainetik aurrera COVID-19aren aurreko eta ordezkapenetarako errefortzu gisa.](#)

[2020/05/06- Haurtzaroa eta gazteriaren deseskalatzeko diziplina arteko taldearen proposamenekin dokumentuan parte hartzea eta hori hedatzea Nafarroan. info +](#)

[2020/04/03- Diziplina arteko taldean parte hartzea, ANNFk sustatuta, Nafarroan haurtzaroaren eta gazteriaren deseskalatzea prestatzeko. Info +](#)

[2020/04/23- GLko profesionaleri eskerrak emateko kanpaina, Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiak antolatuta. Info +](#)

[2020/04/22- Bilerak Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako Batzordeekin, arlo ezberdinak ebaluatzeko.](#)

[2020/04/15- Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoak egindako ekintzak azaltzeko bideo-laburpena, lehendakariaren eskutik. Info +](#)

[2020/04/15 – Gizarte Laneko eta Osasuneko Estatu Elkarteak \(Nafarroako delegazioa\) egindako gutunerako atxikipena eta Nafarroako Osasun Kontseilaritzara bidaltzea. info +](#)

[2020/04/14 – COVID-19aren krisian zehar lankideei laguntzeko bideoa. Info +](#)

[2020/04/06- Krisi honetan Gizarte Laneko profesionalak egindako lana eskertzeko bideoa. Info +](#)

[2020/04/01 – Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialeko profesionalentzako gomendioak. Info +](#)




2020/03/27- Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialaren KOMUNIKATUA COVID-19aren krisiaren inguruan. Info +.

2020/03/27 – Nafarroako Gizarte Langintzaren Elkargoko lehendakariak elkargokideei egindako GUTUNA, COVID-19aren egoera dela-eta. Info +

4.- NGLEOren BATZAR OROKORRAK

Bilerak Ohiko Batzar Orokorretan, NGLEOren estatutuen arabera, ohiko bi batzar orokor egin behar dira. Urteko lehen batzarra atzeratu egin zen, eta, horrela, 2020ko ekainean egin zen online formatuan (lehen aldiz); bigarrenaren deialdia, berriz, 2020ko abenduan egin zen eta bilera 2021eko urtarrilean burutu zen.

Batzarrak 2020ko ekainaren 29an eta 2021eko urtarrilaren 21ean egin ziren. Ekaineko batzarrean 16 pertsona bildu ziren eta urtarrilekoan 27 (biak online egin ziren).



- **2020ko ekainaren 29an urteko Ohiko lehen Batzarra egin zen.**

Gai-zerrenda honako hau izan zen:

ORDEN DEL DÍA



1.- Lectura y aprobación si procede del acta anterior.
2.- Aprobación de memoria de actividades y económica del año 2019
3.- Presentación del plan de trabajo de la Junta
4.- Comisiones - grupos de trabajo.
5.- Ruegos y preguntas.





- 2021eko urtarrilaren 21ean egindako bigarren Batzarrean, berriz, gai hauek jorratu zituzten:

ORDEN DEL DÍA

- 1.- Lectura y aprobación si procede del acta anterior.
- 2.- Resumen del segundo semestre de 2020 y plan actividades para 2021.
- 3.- Comisiones - grupos de trabajo.
- 4.- Aprobación del Presupuesto para el próximo año y memoria económica del año 2020 (hasta noviembre).
- 5.- Ruegos y preguntas.

4.- ELKARGOKO KIDE EGITEA

2020ko abenduaren 31n, guztira 933 kide daude Elkargoan (aurreko urtean baino 110 pertsona gehiago), eta horietatik,

- 855 emakumeak dira eta 78 gizonak
- 858 pertsona jardunean daude eta 75 erretiratuta (ez dute kuotarik ordaintzen, baina Elkargotik informazio guztia jasotzen jarraitzen dute)
- Aurtan, **altak**, guztira, 110 pertsona izan dira
- **Baja**, aldiz, 19 elkargokidek eman dute
- Beraz, altak bajak baino gehiago izan dira (91 elkargokide).

Información del Colegio: Datos Colegiación últimos años

AÑO	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014
ALTAS	110	61	85	52	31	33	30
Hombres	14	8					
Mujeres	96	53					
BAJAS	19	22	15	10	18	22	23
Hombres	1	4					
Mujeres	18	18					
COLEGIADOS/AS EN ACTIVO	858	773	742	682	638		
Hombres	74	61					
Mujeres	784	712					
COLEGIADOS/AS JUBILADOS/AS	75	70	62	55	55		
Hombres	4	2					
Mujeres	71	68					
TOTAL COLEGIADOS/AS	933	843	804	737	693	675	667
Hombres	78	63	59				
Mujeres	855	780	745				



Elkargoaren kuotak murriztea

Elkargoko kide egiteko tasa (120,20 € edo 72,12 € titulua lortutako dataren arabera) eta sei hileko kuotak (51,50 € urtean bitan, urtarrilean eta uztailean), bere horretan mantendu dira. Era berean, tasen gainean %25eko deskontua aplikatu zaie kuota kobratu aurreko bost hilabetetan langabezian egon diren eta denboraldi horretan inolako prestaziorik jaso ez duten elkargokideei (betiere justifikatzeko Elkargoan lan-bizitza aurkeztuta).

5.- ZER ESKAINTZEN DIEGU ELKARGOKIDEEI?

➤ Prestakuntza

2020an, sei hilabeteko jardueren aurreikuspena egin zen, eta planteatutako jarduera bat soilik burutu ahal izan zen.



Jarduera hauek planifikatu ziren:

- Ikastaroak:
 - Diagnostiko soziala (8 ordu)
 - Proiektuen kudeaketa (10 ordu) - 2 ikastaro: 1 Tuteran eta bestea Iruñean.
- Prestakuntza-pilulak / Tailerrak:
 - Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH)
 - Garapen komunitarioa
 - Trebetasun Sozialak eta Umorea esku-hartze sozialean
- Partekaturiko espazioak:
 - Gainbegiratzearen garrantzia
 - Ekintzailatza eta Gizarte Lana ekitaldi librean



- Kafe-tertuliak:
 - Lizarra - Gaia: “Gizarte Lan Komunitarioa”
 - Tafalla - Gaia: “Gizarte Lana eta Berrikuntza”
 - Iruña - Gaia: “Zehazteke”

Programaturiko jarduera guztietatik, soilik GIHei buruzko tailerra burutu ahal izan zen, martxoko lehen astean. Gainerako jarduerak bertan behera geratu ziren, eta horietako batzuk egokitu egin ziren bigarren seihilekoan zehar burutze aldera.



- *GIHei buruko tailerra NGLEOn*

Gatazka juridikoetako bitartekaritzan UNIBERTSITATE-ADITUA antolatu zuen NUP Fundazioak NGLEOren lankidetzarekin, eta 2020ko otsailean amaitu zen. 27 lagunek egin zuten prestakuntza, eta hemen duzue lehen promozioaren argazki bat.



- *Gatazka juridikoetako bitartekaritzan Unibertsitate Adituaren I. promozioa.*

2020ko urrian, Unibertsitate Adituaren bigarren edizioa abian jarri zen.



2020ko bigarren seihilekoan, lehen seihilekorako proposaturiko zenbait prestakuntza-jarduera egokitu eta honako hauek burutu ziren:

- **Ikastaroak:**
 - Lidergoa (8 ordu): 19 parte-hartzaile
 - Proiektuen kudeaketa (20 ordu): 17 parte-hartzaile
- **Tailerrak / Prestakuntza-pilulak:**
 - Ekintzailtza eta ariketa librea GLean: 20 parte-hartzaile
 - Trebetasun Sozialak eta Umorea GLean: 18 parte-hartzaile
 - Esku-hartze sozialean genero-indarkeriak detektatzeko gakoak: 20 parte-hartzaile.

Propuesta formativa segundo semestre

- **Cursos:**
 - Liderazgo (8h.)
19 participantes.
 - Gestión de proyectos (20h.)
17 participantes.



Propuesta formativa segundo semestre:

Talleres / píldoras formativas (1,5h.-2 h.):

- "Emprendimiento y ejercicio libre en el Trabajo Social". (20 partic.)
- "HH.SS. y Humor en el Trabajo Social". (18 partic.)
- "Claves para detectar violencias de género en la intervención social". (20 partic.)



○ **Webinarrak / Online partekaturiko espazioak**

Horien bitartez, topaketak sustatu eta gaiak, jardunbideak eta egiteko moduak partekatu nahi dira, beste elkargokide batzuen inspirazio-iturri izateko. NGLEOko batzorde ezberdinetatik webinar ezberdinak eskaini ziren haien inguruko gaiekin. Aurkezpenen bitartez, hobetu ezagutu ahal izan ziren gure batzordeak, egiten duten lana eta uneko kezkak.

Bertan, Garapen Komunitarioko eta Bitartekaritzako Batzordeek, Foro Gerontologikoak eta Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak hartu zuten parte.

- **Garapen Komunitarioko** Batzordearen gaia hau izan zen: *HERRITARREN PARTE-HARTZEA. Oparoalditik zalantzazko garaietara.* Quim Brugue (Gironako Unibertsitatea).
- **Bitartekaritza** Batzordearen gaia hau izan zen: *Gizarte Lana eta Bitartekaritza: Jardunbide egokia eta konkistatzeko lekua.* Mar Astiz eta Olga Ardanaz (Bitartekaritza Batzordeko kideak).
- **Foro Gerontologikoaren** gaia hau izan zen: *Adineko pertsonaren autonomia-eskubidea, profesional gisa egiten dugun begiradaren foku gisa.* Javier Irujo (Foro Gerontologikoko kidea).



- **Gizarte Zerbitzuetako Batzordearen** gaia hau izan zen: *Egungo egoera eta lehen arretaren planteamendu berria Gizarte Zerbitzuetan* (Ana Luser, Eva Andueza, Mar Llorente,.. Gizarte Zerbitzuetako Batzordeko kideak).

Propuesta formativa- "Mes participativo" segundo semestre:

- Webinars- Seminarios Web- (Comisiones)

The poster lists the following activities:

- Jueves 20 Octubre (17.30-19.00)**
Comisión de Desarrollo Comunitario
"PARTICIPACIÓN CIUDADANA. De los tiempos de bonanza a los tiempos de incertidumbre"
Quim Bragas, Universidad de Girona.
- Viernes 11 Noviembre (17.30-19.00)**
Mediación: "Trabaja social y mediación: una buena práctica y un lugar a conquistar"
Olga Andueza y Mar Llorente, miembros de la Comisión de Mediación del COTSN.
- Jueves 19 Noviembre (17.30-19.00)**
Foro Gerontológico: "El derecho de Autonomía de la persona mayor como foco de nuestra atención profesional"
Javier Ina, miembro del Foro Gerontológico COTSN y SNGO.
- Jueves 26 Noviembre (17.30-19.00)**
Comisión SS del COTSN: "Situación actual y replanteamiento del sistema de Atención Primaria en Servicios Sociales".

" Mes Participativo "

- Comisiones:
- Desarrollo comunitario (34-17)
- Mediación (41-29)
- Foro Gerontológico (35-17)
- SS.SS (43-19)

- Webinarrak eta horietan izandako parte-hartzea. (Izena emandako pertsonak-bertaratutako pertsonak).

➤ NGLEO lanbideari dagokionean parte-hartzea gauatzeko plataforma gisa: Lan-taldeak / Batzordeak

NGLEO irekita dago elkargokideek lanbideari dagokionean parte-hartzea gauatzeko plataforma gisa.

Hainbat batzorde eta/edo lantalde daude Elkargoaren barruan lanean elkargokideen borondatez eta interesez.

Lantalde eta/edo batzorde horiek irekita daude Gizarte Lanaren lanbidearekin loturiko arlo espezifikoetan lan egin nahi duten elkargokideek parte hartzeko.

Talde horiez gain, elkargokideek ere proposatu dezakete talde berri bat proposatzeko, ekimenaren bat izanez gero (ikus estatutuak) <https://trabajosocialnavarra.org/wp-content/uploads/2019/09/Estatutos-CTSN-Castellano.pdf>

2020. urtean, lanerako bi batzorde berri sortu dira: Hezkuntza-arloko Gizarte Lana eta Etxebizitza Batzordea.



Hauek dira dauden batzordeak eta/edo lantaldeak:

3.- NGLEOko LAN TALDEAK

- [Bitartekaritza Batzordea](#)
- [Gizarte Zerbitzuen Batzordea](#)
- [Osasun arloko Gizarte Langintzaren Batzordea](#)
- [Gizarte Langintza Komunitarioaren Batzordea](#)
- [Gizarte Lan Gerontologikoaren Foroa](#)
- [Hazkuntza arloko Gizarte Langintzaren Batzordea](#)
- [Etxebizitza Batzordea](#)



Bitartekaritza Batzordea

Bitartekaritza-batzordeak lan asko egiten jarraitu du 2020an, Lizarrako eta Iruñeko Abokatuen Elkargoetatik bideratutako bitartekaritza-kasuei erantzuna ematen jarraitzeko. Aldi berean, zerbitzua eta premiak hobetzen joateko lan egin du, zerbitzuaren protokoloak berrikusi eta hobetu ditu, eta Lizarrako eta Iruñeko Abokatuen Elkargoarekin bilerak sustatu ditu, bi Elkargoekin hitzarmenak eguneratzearekin batera.



Gizarte Zerbitzuen Batzordea

Lehen Arretaren inguruan lanean eta hausnartzen jarraitu du, eta "Hautzaroa-nerabezaroa eta COVID-19 diziiplina arteko mahaian" parte hartu du.

Era berean, Eskubide Sozialetako kontseilariarekin eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioarekin biltzeko bilerak sustatu ditu, lehen arretako egungo premiei buruzko hausnarketak partekatzearren.



○ Bilera M^a Carmen Maezturerekin (Eskubide Sozialetako kontseilaria)



○ NGLEOren bilera NUKFrekin



Osasun-arloko Gizarte Langintzaren Batzordea

- Osasun Batzordeak lanean jarraitu du Osasun-arloko Gizarte Lana lanbide eta karrera profesional gisa onartzeaz gain, pandemia-garaian Osasun-arloko lankideen egoera zaintzeko.


Azaroan, Osasun Zuzendari Nagusia, Carlos Artundo, NGLEOrekin bildu zen neurri zehatzak jasotzen zituen plan bat sortu beharra zegoela azpimarratzeko, hots, 2020ko abendurako plan espres bat. Era berean, laguntza eskatu zien NGLEOri nahiz beste erakunde batzuei. Osasuneko Batzordeak proposamen hori landu zuen.



Gizarte Langintza Komunitarioaren Batzordea

Taldea 2019aren erdi aldera sortu zen, eta horren lana eta kezka Garapen Komunitarioa jomuga izatea da.

Garapen Komunitarioaren Batzordea elkarlanean aritu da NUPeko Herritartasunaren eta Pluralismoaren Unesco Katedrak antolatutako **jardunaldietan**. Izenburua honako hau izan zen: **“LURRALDE IRAUNKORRAK PANDEMIA-GARIAIAN”**.



- *Herritartasunaren eta Pluralismoaren Unesco Katedrako jardunaldietako baten argazkia -NUP-*



Gizarte Lan Gerontologikoaren Foroa

Foro Gerontologikoa **Nafarroako Geriatria eta Gerontologia Sozietatearekin** sinaturiko hitzarmenaren bidez sortu zen. Urtarrilaren amaiera aldera, **Gizarte Langintzari eta adinekoei buruzko I. Jardunaldia** antolatu zuen Foroak. Horren inguruko laburpena hemen aurki dezakezue: <https://sngg.es/index.php/actualidad/ya-esta-publicado-el-numero-27-de-cuadernos-gerontologicos>



- *Foro Gerontologikoak antolatutako Gizarte Langintza Gerontologikoari buruzko I. jardunaldia.*

Halaber, Foro Gerontologikoak Nafarroan Gizarte Langintzak epidemia-egunetan egindako esku-hartze soziosanitarioaren “argazki” bat egin du, eta AMIA analisiaren bidez datuak bildu ditu. Analisia profesional ezberdinei bidali zaie.



Hezkuntza-arloko Gizarte Langintzaren Batzordea

Batzordea 2020. urtearen amaiera aldera sortu zen, gizarte-langintzaren irudi edo profil profesionala eskola-eremuan ere onartua izan dadin.



Etxebizitza Batzordea

Batzordea 2020. urtearen amaiera aldera sortu zen, etxebizitza-arloko politikak azpimarratzeko helburuarekin, etxebizitza funtsezko eskubidea izateko eta ez kontsumo edo merkatuko ondasuna.



➤ Elkargokideentzako enplegu-poltsa

2017an lortutako akordioari jarraiki, elkargokide guztiei bidali zaizkie NGLEOra urte osoan zehar iristen joan diren enplegu-eskaintzak.

Aurten, 8 lan-eskaintza pribatu jaso ditu NGLEOk. Horiei gehitu behar zaizkie, baita ere, asteroko buletinean zabaltzen diren asteroko enplegu-eskaintzak (Nafarroako Enplegu Zerbitzuan, NAOen eta BOEn argitaratuak).

2020an, aldi baterako enplegu-poltsa sortu zen, egon zitezkeen beharrak eta beharrezko errefortzuak arintzeko 2020ko udarako, COVID-19ak eragindako krisia dela-eta. Behar horiek betetzeko prest zegoen jendearen enplegu-poltsa bat sortu eta Iruñeko Udalari eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioari (NUKF) eskaini zitzaion.

Eskaintza horren ondorioz, NGLEOk bidalitako zerrendetako 17 pertsona kontratatu zituen Iruñeko Udalak, mota askotako kontratuekin (oporrak, COVID-19 errefortzua, e.a.). Zerrenda horrek indarrean jarraitzen du (premia txikiagoarekin), harik eta abian den oposizio-azterketatik zerrenda berria sortu arte.

➤ Bitartekaritza-zerbitzua

Bitartekaritza-zerbitzuak Iruñeko eta Lizarrako Abokatuen Elkargotik bideratutako bitartekaritza-kasuak kudeatzen jarraitu du; zerbitzua 2018ko azken hiruhilekoan jarri zen abian.

2020. urtean zehar, bitartekaritza-zerbitzua hazten joan da kasuei zein bitartekariei eta zerbitzuaren kalitateari dagokienean.

Koordinaziorako bilerak egin ditu Nafarroako Gobernu Justizia Departamentuarekin eta Lizarrako eta Iruñeko Abokatuen Elkargoarekin.

Halaber, etengabeko prestakuntza eskaini zaie NGLEOren zerbitzuan alta emanda dauden bitartekariei, eta 2020an zehar hilero bilera egin dute kasuak edo bitartekariek hasieran izan dituzten zailtasunak gainbegiratzeko.

Bitartekaritza-zerbitzuan agente ezberdinek esku hartu dute behar bezala funtziona zezan: zerbitzu hori ordezkatzeko eta bere gain hartzen duen NGLEOko Batzordeak; kasuen alderdi administratiboa eta ekonomikoa kudeatzen duen idazkaritza teknikoak; zerbitzua finkatzeko helburu berriak eta hobekuntzak ezartzen dituen bitartekarien batzordeak; eta zerbitzuaren funtzionamendu egokia, kalitatea eta hobekuntza bermatzeko eman beharreko urratsetan agente ezberdinei aholkuak ematen dizkien aholkularitza teknikoak (Maite Eraso).

Xehetasun gehiago nahi izanez gero, [ikus 2020ko memoria](#).



Servicio de Mediación

- Datos sobre el servicio de mediación desde su creación
- 25 mediadoras en Registro de mediadores/as del COTSN



AÑO	DERIVAC.	ESTELLA	PAMPLONA /AOIZ	Nº SESIONES	ÁMBITOS		NO INICIAN	INICIAN	CON ACUERDO
					INTRAJ.	EXTRAJ.			
2018	4	0	4	9	9	0	0	4	2 (sobre iniciados) 50% con acuerdo
2019	32	11	21	64	64	0	10	22	13 (sobre iniciados) 59,09 con acuerdo
2020	49	7	42	131	42	7	14	35	15 (iniciados) 42,8% con acuerdo.

- 2020an Gizarte Langintzaren Elkargoko bitartekaritza-zerbitzura bideratutako kasuen bilakaera

➤ Erantzukizun zibilaren aseguruia

Elkargoak erantzukizun zibilaren aseguruia lortzeko aukera eskaintzen du; aseguruak zer estaltzen duen helbide honetan kontsulta daiteke: <https://trabajosocialnavarra.org/que-ofrecemos/#responsabilidad-civil>. Elkargokide bakoitzak urteko edozein unetan kontratatu ahal izango du, komeni zaionaren arabera.

2020. urtean, **Erantzukizun Zibilaren Aseguruaren Polizara** guztira **100 pertsona** daude harpidetuta, eta horietatik **25 A aukeran daude alta emanda** eta gainerakoak, hots, **75, B aukeran**. Bien arteko aldea primak ezartzen du, estaldurak berdinak baitira.

A aukeran, urteko 5,31 € ordaintzen dira eta B aukeran berriz, urteko 10,62 €.

Aseguruia Brokers 88 Aseguru Artekaritzarekin kontratatzen du Elkargoak, Markel aseguru-etxearen bitartez (Madril). Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiak akordio bat sinatuta du horrekin Estatuko Gizarte Langintzaren Elkargo Profesional guztientzat.



OTROS servicios

- Asesoramiento Jurídico
- Seguro de responsabilidad civil
- 15 consultas realizadas a día 01/12/2020
- 75 personas (900.000€ cobertura)
- 25 personas (450.000€ cobertura)



➤ Aholkularitza juridikoa

NGLEOk elkargokideentzako Aholkularitza Juridikoko zerbitzu bat du, eta, era horretan, jarduera profesionalarekin edo pertsonalarekin loturiko kontsultak egin ditzakete.

Aholkularitza juridikoa doako zerbitzua da elkargokideentzat. NGLEOk aurkeztutako gaiari buruzko informazioa eta aholkularitza orokorra eskaintzen du. Zerbitzuan ez dira sartzen, horrela behar izanez gero, esku-hartze espezializatuagoak, prozesu judizialen kudeaketak edo ordezkaritzak.

2020an zehar, aholkularitza juridikoko 15 kontsulta egin dituzte elkargokideek.

15 kontsulta horietatik,

- 8 kontsulta Udalen deialdiekin loturiko alderdi ezberdinei buruzkoak izan dira.
- 2 kontsulta lanbidetik eratorritako gaiei buruzkoak izan dira.
- 2 kontsulta lan-kontratuetatik eratorritako gaiei buruzkoak izan dira. Gai horiek argitu eta sindikatueta bidali dira.
- Kontsulta 1 datuak babesteari buruzko zalantzen ingurukoa izan da.
- 2 kontsulta epaiketetan deklaratzeko deiekin lotutako zalantzei buruzkoak izan dira.



➤ Hitzarmenak eta abantailak erakundeekin



Prestakuntza-erakundeak- Hona hemen erakundeekin jada sinatuta dauden hitzarmenak:

- **INOP- GALIZIA IKASKETA ZENTROA - NAFARROAKO OPOSIZIOEN ZENTROA:** oposizioak prestatzeko aukera eskaintzen duten akademiak dira, eta elkargokideei deskontua egiten diete gai-zerrendetan.
- **UOC** (Kataluniako Oberta Unibertsitatea). Osasun-arloko Gizarte Langintzako masterra, elkargokideentzat tasen gaineko deskontuarekin.
- **AOSLA** (Orientatzaile soziolaboralen Elkarte Profesionala).
- **INEFSO** (Gizarte Prestakuntzako Espainiako Institutua).
- **NAFARROAKO MARKETING KLUBA:** bazkideei aplikatzen dizkieten deskontu berak elkargokideentzat.
- **NAFARROAKO OPOSIZIOEN ZENTROA**
- **GAITASUN SOZIALA** (urruneko prestakuntza deskontuekin).
- **ISES** (Ikasketa Sozialen eta Soziosanitarioen Goi Institutua)

Rural Kutxarekin hitzarmena du NGLEOk. Beste urte batez, banku-hitzarmena sinatu da erakundearekin, eta hainbat abantaila eskaintzen ditu nomina bertan helbideratzen duten elkargokideentzat.

Halaber, elkargokideentzat abantailak eskaintzen dituzten lankidetza-hitzarmenak berritu eta eguneratu dira:

- **Erantzukizun Zibilaren** Asegurua berritu da Broker's 88 Artekartitzarekin.
- **Iruñeko eta Lizarrako Abokatuen Elkargoekin** Bitartekaritzako hitzarmena eguneratu da (penal kasuak Lizarran eta judizioz kanpoko kasuak Iruñean).
- **NUPe**kin dugun hitzarmena eguneratu da, 2006an sinatutako hitzarmena. Hitzarmen horren bitartez, sinergiak aprobeztatu eta lankidetza areagotu nahi da.
- Lankidetza-hitzarmen berria sinatu da **Prodana Consultores-ekin**; bertan, deskontuak eskaintzen zaizkie elkargokideei datuen babesaren arloan.

Informazio gehiago nahi izanez gero: <https://trabajosocialnavarra.org/que-ofrecemos/#convenios>




➤ Komunikazioa

Asteroko buletinen, Facebooken eta sei hileko aldizkarien bitartez ohiko komunikazioa eskaintzeaz gain, aurten ahalegin handiagoa egin dugu sareetan egoteko eta sareak elkarrenergiteko gune bilakatu diren uneetan presenteari egoteko.

Aurrean aipatu moduan, WEB orrialdean COVID-19 gunea sortu zen, elkargokideei laguntza, informazioa eta baliabideak eskaintzeko. Horrez gain, Batzordeak 2020. urtearen hasiera aldera ezarritako lan-planeko zeharkako ildoetarikoa batekin jarraituz, modu gardenean erakutsi nahi izan ziren NGLEO alarma-egoera ezarri zenetik egiten ari zen ekintza guztiak, etengabe aldatzen ari zen egoerara egokituaz.

NGLEOk babesa eskaini nahi izan zien elkargokideei, Batzordeak eta elkargokideek egindako dibulgaziozko bideoen bitartez.



- *Gizarte Langintzako profesionalen bideoa, lankideei babesa emateko.*

Halaber, youtube kanala ireki genuen gure elkargokideei modu pribatuan bidaltzeko gure batzordeek prestatutako eta aurrean aipatutako mintegiak edo webinarrak.



Comunicación

- Web, actualización y mejoras
- Facebook (2035 personas seguidoras)
- Boletines semanales (recopilación informativa)
- Revista semestral (temas actualidad)
- Canal Youtube



Estekak: [web gunea](#), [seiñileko aldizkaria](#) eta [Facebook](#).



Peritazio judizialak



Urtearen hasieran, **Prozedura Zibilaren Legean** jasotako araudiari jarraiki, hots, *urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeko 341. artikuluko 1. puntuan jasotzen den moduan*, “*Urtero-urtero, urtarrilean, Lanbide Elkargoei, edo, horiek ezean, antzeko erakundeei eta aurreko artikuluko bigarren atalean aipatu akademia eta kultura- eta zientzia-erakundeei eskatuko zaie peritu gisa jarduteko prest dauden elkargokide edo elkarkideen zerrenda bidaltzeko. Zerrenda bakoitzeko lehen izendapena Idazkari Judizialaren aurrean egingo den zozketa bidez burutuko da, eta hortik hasita hurrengo izendapenak egingo dira, hurrenez hurren*”.

NGLEOk Gizarte Langintzako profesionalen zerrenda Auzitegira bidaltzen du; hots, horrela nahi izan eta horren inguruan eskatzen den prestakuntza guztia dutenena.

2020. urtean, zerrenda 11 pertsonak osatu dute. Denak elkargokideak dira eta arlo horretan prestakuntza eta esperientzia dutenak. 2020. urtean zehar, peritazio judizialak egiteko Gizarte-langilerik ez da eskatu.



6.- Bestelakoak

➤ Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiarekin topaketa Nafarroan

Emiliana Vicente, Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiko lehendakaria, eta Alvaro Gallo, Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiko Batzordeko kidea eta Nafarroako, Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko Gizarte Langintzaren Elkargo Ofizialen lotura, NGLEOren egoitzan izan ziren Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiak aurkeztutako lan-plana gurekin partekatzeko eta gure Elkargoa eta eskariak hobeto ezagutzeko.

*Lorea Urabayen, NGLEOko lehendakaria, eta Emi Vicente, Gizarte Langintzako Kontseilu Nagusiko lehendakaria



*NGLEOko Batzordeak eta Emi Vicentek eta Alvaro Gallok Nafarroan egindako bilera.

➤ Gizarte Langintzaren 2020ko Eguna

2020ko martxoaren 17an, Gizarte Langintzaren Munduko Eguna ospatzea aurreikusita zegoen. Baina alarma-egoera deklaratu ondoren, egun horretarako prestatutako jarduera guztiak bertan behera geratu ziren.

Jarraian, Gizarte Langintzaren Munduko Egunerako hasieran egindako kartela eta ondorengo egokitapena erakutsiko dizkizuegu.

2020ko goiburua hau izan da: ***“Giza Harremanen garrantzia sustatuz”***.



Día Mundial de Trabajo Social

17
03


El Colegio Oficial de Trabajo Social de Navarra, con la prudencia y la responsabilidad institucional ante la situación sanitaria producida por el COVID-19 **cancela** todos los actos previstos para la celebración del Día Mundial de Trabajo Social hasta nuevas indicaciones



COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE NAVARRA
NAVARRA - NAVARRA



El Colegio Oficial de Trabajo Social de Navarra, se une a la Federación Internacional de Trabajadoras y Trabajadores Sociales (FITS-IFSW), la Asociación Internacional de Escuelas de Trabajo Social (AIETS-IASSW) y el Comité Internacional para el Bienestar Social (CIBS-ICSW) en la celebración del 17 de Marzo, cómo *Día Mundial del Trabajo Social*, reivindicando "ser agentes de transformación social y promover unas relaciones sociales comunitarias e igualitarias"



➤ Elkargokideentzako opari txikia

NGLEOko Batzordeak elkargokide guztiei opari txiki bat egitea erabaki zuen. Gainera, horren bitartez Elkargoak egiten dituen ekintzetan GIHak pixkanaka sartzen joateko NGLEOk duen konpromisoa eta asmoa jaso nahi izan dira.



➤ Elkargokideen ekarpenak – 2020ko EBALUAZIOAREN GALDETEGIA

2020ko urtearen amaiera aldera, ebaluazio-galdetegi bat bidali genien elkargokide guztiei, NGLEOren zerbitzuen eta jardueren inguruan zer-nolako iritzia duten jakiteko. Horrez gain, iradokizunak eta bestelako ekarpenak jaso dira, eta esteka honetan ikus ditzakezue:

<https://trabajosocialnavarra.org/wp-content/uploads/2021/04/CUESTIONARIO-EVALUACION-COTSN-2020.pdf>



2020KO MEMORIA EKONOMIKOA

GASTUAK	85779,84
4 FINANTZAKETA	12497,32
410.1 Ordainagiriak itzultzea	1442,00
47. Administrazio publikoak	11055,32
PFEZ	3713,40
Gizarte Segurantzza	7341,92
6. EROSKETAK ETA GASTUAK	73282,52
Erosketak	14759,45
Liburuak erostea	1316,01
Bulegoko materiala erostea	2709,78
Elkargoko kideen prestakuntza	2725,05
Elkargoaren txartela	17,31
Kode deontologikoak	500,00
Bitartekariak	7491,30
Kanpoko zerbitzuak	18456,49
Konponketa- eta kontserbazio-lanak	2520,75
Fotokopiagailuaren eta Inprimagailuaren Mantentze Zerbitzua	0,00
Zerbitzu informatikoa	1396,66
Web orrialdea	1124,09



Profesional independenteen zerbitzuak	7281,77
Aholkularitza	1277,16
Abokatua	2688,00
Bitartekaritza aholkaritza teknikoa	2441,20
Laneko osasuna	875,41
Datuen babesak	423,50
Lokalaren eta langileen aseguria	391,11
Horixe (sehileko aldizkariak, txostenak, ea)	1226,03
Hornidurak	1361,24
Argia	470,07
Gasa	589,41
Ura	301,76
Komunikazioak eta bestelako zerbitzuak	5252,09
Garbiketa produktoak	22,43
Batzordearen dietak eta joan-etorriak	368,10
Antivirus-a	82,49
Telefonoa eta internet-a	1467,38
Posta-kutxa	69,50
Komunitatea	600,00
Hainbat gastu eta aurreikusi gabeko gastuak	2642,19
63. Bestelako zergak	14789,94
630 Iruñako Udalari ordaintzea	156,70
631 Kontseiluari ordaintzea	14633,24
64. Langileen gastuak eta gastu sozialak	24675,75
640. Nominak	24393,51
644 Harpidetzak	282,24



66. Finantza-gastuak	600,89
DIRU-SARRERAK	108573,00

7.0 Salmentak eta diru-sarrerak	108573,00
7.0 Salmentak eta diru-sarrerak	96114,82
Elkargokideen ordainagiriak	85187,84
Elkargokideen inskripzioak	10926,98
77, Beste diru sarrerak	12458,18
Bitartekaritza bidezko ordaina -NG-	7854,00
Sevilla-ko kongresua	61,50
Rural Kutxarekin hitzarmena	1.800,00
Lidergo kurtsoaren inskripzioak	560,00
Proiektu kudeaketa kurtsoaren inskripziak	1.260,00
Batzarraren ordaina (GLKO)	361,68
Bitartekaritza gainbegiraketaren inskripzioak.	561,00
Diru sarrerak - Gastuak 2020	22.793,16

Saldoa 2020/01/01ean	81157,48
Saldoa 2020/12/31n	103950,64